



Innobasqueko bazkideentzako Formakuntza

Aktibo ukiezinen ustiapena: zer dira eta nola kudeatu horien balorazioa



– Eguna eta ordutegia

Irailak 26, osteguna. 9:00etatik 12:30etara.

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.
Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa, Zamudio.

– Iraupena

3,5 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasqueko bazkideentzat bakarrik:

- baldin eta sistematikoki eta modu planifikatuan I+G jarduerak gauzatzen badituzte edo zeregin horrekin hasi nahi badute.
- bereziki garrantzitsua da Innobasqueko edozein erakunde bazkideren ikertzaileentzako eta kudeatzaileentzako, baldin eta ulertu nahi badute nola kapitalizatu ikerketan eta garapenean sortutako ezagutza, inbertsioaren itzulera maximizatzeko eta lehiarako abantaila lortzeko.

* Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

- Aktibo ukiezinaren izaera ulertzea: Merkatuari begira, I+G+b jardueren emaitzen eta haien aplikazio edo erabileraren artean bereiztea.
- Balioa vs prezioa ulertzea: Aktibo ukiezin baten berezko balioaren eta hori saltzeko edo lizentziatzeko prezioaren arteko aldea ezagutzea.
- I+G+b-aren balioa maximizatzea: Erakunde batean ikertu eta garatzen denean, balioa emateko estrategiak.
- Lankidetzako estrategiak: Bazkideekin eta etorkizuneko inbertitzaileekin akordioak nola aukeratu eta negoziatu jakitea.
- Partzuergoak eta gatazkak kudeatzea: Partzuergo-erabaki batean funtsezko elementuak eta balizko gatazketara nola aurreratu ezagutzea.

Prestakuntzaren edukia

- A. Research outputen, I+G+b-aren emaitzaren eta merkatuko produktu/zerbitzuaren arteko aldeak. Ukiezin motak eta zergatik baloratzen ditugu?
- B. Balioaren eta prezioaren arteko aldea.
- C. Know-howa sortzea eta negoziorako trantsizioa egitea.
- D. Baloratu aurretik: erakundearen estrategia, teknologia eta babes mota ulertzea.
- E. Partzuergoko Akordioaren ohiko edukia eta banaketa. Zer negoziatu proiektua egikaritzen hasi baino lehen?
- F. Ohiko gatazkak bazkideen artean:
 - i. Backgrounda eta emaitzak.
 - ii. Kontratuan erantzukizun-mugak.
 - iii. MikroETE-en eta ETE-en zeregina. Nola negoziatu enpresa handi batekin?
 - iv. Hirugarren herrialdeetako enpresa harpidetuak.
- G. IPR babestea, kudeatzea eta baloratzea:
 - i. Emaitzen jabetza:
 - a) Results-en banaketa eta kudeaketa proiektuaren amaieran zehar merkataritza ustiapenarekin duten harremanean.
 - b) ETE-entzako betekizun zehatzak.
 - c) Kasu zehatzak: Prototipoak, hirugarrenek lagatako ondasunen erabilera eta azpikontratazioak.
 - ii. Emaitza motetarako babes-mekanismo motak eta horien ezaugarriak. Interes-gatazkak.
 - iii. Barreiatzea edo ustiatzea?
 - a) "Open Access". Irizpideak eta motak.
 - b) Merkataritza-ustiapenerako inplikazioak eta mugak. Nola merkaturatu zenbait bazkideren baterako emaitza?
 - iv. IPR, dissemination and exploitation Board, erabakiak hartzeko. Helburuak eta zereginak proiektuan zehar.

Norekin



Javier Medina Antón

Qi EUROPE enpresako bazkide-zuzendari nagusia.

Ekonomialaria, finantzen arloan aditua. Energia Negozioetan eta ZNPn Masterra, IESE Business School. Madrilgo Ekonomialarien Elkargo Ofizialeko kidea, Madrilgo Komunitateko enpresa-kontseilari ziurtatua eta EEko Women Leadership programako kontseilaria. 1995az gero bere lanbide-karrera negozio-eredu berriak diseinatu eta estrategikoki garatzera bideratu du (balio-proposamena, kapitalaren modelizazioa eta optimizazioa, prezioan, errentagarritasunak eta kostuak, seed&startup capital, private equity, venture capital,

lehiakortasuna eta produktibitatea); horrez gain, teknologia transferitzeko eragiketak eta I+G+b-aren proiektuak gauzatzen ditu (teknologien brokerra, inbertsioen finantzaketa eta analisia, KFD baloratzea eta Venture Capital Method, egituratzea, negoziazioa eta salmenta/aliantzak), eta I+G+b-aren proiektuak idatzi, kudeatu eta justifikatu ere bai, ingurune digitaletan/teknologikoetan/ industrialetan negozio berriak garatzearekin batera (merkatua eskuratzea, aniztea, haztea eta nazioartekotzea). Halakoetan, zuzeneko erantzukizuna du berritu eta produktu eta zerbitzu teknologiko berriak garatzeko orduan.

Nola aurreratu etorkizunari – Berritzeko joerak



– Eguna eta ordutegia

Urriak 8, asteartea. 9:30etatik 13:30etara.

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.
Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa, Zamudio.

– Iraupena

4 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziako erakunde bazkideentzat baino ez:

- inguruneko aldaketei dagoeneko adi daudenentzat eta erabakiak hartzeko ingurunean zaintza-jarduerak sistematikoki egiten dituztenentzat.
- aldaketak eta berrikuntzak aztertu eta deskribatzetik etorkizuneko joerak identifikatzera pasatzeko jakin-nahia dutenentzat.
- joeretatik haratago joan eta berrikuntza-produktu zehatzak edo negozio-ereduak garatu nahi dituztenentzat, etorkizunak eskaintzen dituen erronkei eta aukerei aurrea hartzeko.
- berrikuntza-jarduerak eta -proiektuak garatzen esperientzia dutenentzat.

* Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

- Aldaketa-joerak identifikatzeko gaitasuna garatzea.
- “Berrikuntzarako lasterbide” gisa joerei etekina ateratzea.
- Joerak erakundearen beraren erabilgarritasunaren arabera hautatzen eta baliozkotzen ikastea.
- Joerak inspirazio-iturri izatetik berrikuntzarako eta arazoak konpontzeko tresna izatera pasatzea.
- Joeretan oinarritutako berrikuntza garatzeko oinarritzko tresna eta metodologiekkin ohitzea.
- Joerak detektatzeko eta aktibatzeke eta erakundearen egunerokotasunean txertatzeko gaitasun biguna (soft skill) lantzea.

Prestakuntzaren edukia

- A. Nola erabiltzen dituzte enpresek joerak eta zertarako.
- B. Zaintzatik joeretara: errealitatea deskribatetik aldaketa-bektoreak identifikatzera.
- C. Joerak: zer dira eta nola sortzen dira.
- D. Joera motak, enpresa eta erakundeetan duten erabilgarritasunaren arabera.
- E. Joeretan oinarritutako berrikuntza: metodologiak eta tresnak.
- F. Azken miliako berrikuntza: joerak, egunerokoan etengabe berritzeko ohiko gaitasun gisa.

Norekin



Juan de los Ángeles

Aholkularia - Berrikuntza eta joerak

Juan de los Angeles C4E Consulting Services konpainiako fundatzailea eta Nafarroako Unibertsitateko irakaslea da. BBDO Nueva Yorken zenbait urte eman ondoren, 1994. urtean doktoretza eskuratu zuen Sormenaren Enpresa Balorazioari buruzko tesiarekin. Harrezkero, sormenaren, berrikuntzaren eta joeren arloetan ikertzen eta ikasleak nahiz profesionalak prestatzen aritu da. 2002. urtean C4E sortu zuen. Joeren aholkularitza-konpainia da, eta txostenen, tailerren, lan-saioen edo inspirazio-bidaien bidez berrikuntza sortzen aditua da.

Berritu lehiatzeko: I+G ustiatzeko estrategiak eta tresnak



– Eguna eta ordutegia

Urriak 9, asteazkena. 8:30etatik 14:30etara.

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.
Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa, Zamudio.

– Iraupena

6 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

Innobasqueko erakunde bazkideentzat baino ez:

- I+G ustiatzeko jarduerak modu sistematizatuan eta planifikatuan gauzatzen dituzten edo gauzatzen hasi nahi dutenentzat.
- bereziki garrantzitsua da Innobasqueko erakunde bazkideetako ikertzaile eta kudeatzaileentzat, enpresa pribatuetarako, ETE-etarako eta enpresa handietarako I+G+b proiektuen prestaketarekin, egokitzapen teknologikoarekin eta merkataritza-salmentarekin lotutako edozein prozesutan parte hartzen dutenentzat.

*Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

- Produktuak eta lehia-onurak ulertzea: produktu berritzaileen eta produktu tradizionalen artean bereizten ikatea. Berrikuntza merkatuan nola nabarmenarazi ikatea.
- Inbertsioa eta finantzaketa: Ulertzea zergatik inbertitzen duten enpresek berrikuntzan eta nola erakarri inbertitzaileak edo nola lortu finantzaketa zure proiekturako.
- Rolak eta arrakastarako estrategiak: Exploitation Manager-en erantzukizunetan trebatzea eta ikerketaren emaitzak merkatura eramateko estrategia eraginkorrak ezagutzea.
- Ebaluazioa eta Plangintza: Metodo errazak ikatea proiektu bat errentagarria den ebaluatzeko eta hari lagunduko dion negozio-plan sendo bat nola egin jakiteko.
- Marketina eta Merkataritza-harremanak: marketin-plan eraginkor bat egitea eta bazkide eta lehiakideekin lankidetzan aritzen ikatea arrakasta ahalik eta handiena izan dadin.

Norekin



Javier Medina Antón

Qi EUROPE enpresako bazkide-zuzendari nagusia.

Ekonomialaria, finantzen arloan aditua. Energia Negozioetan eta ZNPn Masterra, IESE Business School.

Madrilgo Ekonomialarien Elkargo Ofizialeko kidea, Madrilgo Komunitateko enpresa-kontseilari ziurtatua

eta EEko Women Leadership programako kontseilaria. 1995az gero bere lanbide-karrera negozio-eredu

berriak diseinatu eta estrategikoki garatzera bideratu du (balio-proposamena, kapitalaren modelizazioa eta

optimizazioa, prezioan, errentagarritasunak eta kostuak, seed&startup capital, private equity, venture capital,

lehiakortasuna eta produktibitatea); horrez gain, teknologia transferitzeko eragiketak eta I+G+b-aren proiektuak gauzatzen ditu

(teknologien brokerra, inbertsioen finantzaketa eta analisia, KFD baloratzea eta Venture Capital Method, egituratzea, negoziazioa

eta salmenta/aliantzak), eta I+G+b-aren proiektuak idatzi, kudeatu eta justifikatu ere bai, ingurune digitaletan/teknologikoetan/

industrialetan negozio berriak garatzearekin batera (merkatua eskuratzea, aniztea, haztea eta nazioartekotzea). Halakoetan,

zuzeneko erantzukizuna du berritu eta produktu eta zerbitzu teknologiko berriak garatzeko orduan.

Prestakuntzaren edukia:

1.- Produktuak berritzea eta desberdintzea

Produktu berritzaileak tradizioetatik bereizten dituzten ezaugarriak, eta berrikuntza horiek nola nabarmendu daitezkeen merkatuan.

2.- Proiektu berritzaileen finantzaketa eta inbertsioa

Inbertitzaileen eta finantza-erakundeen irizpideak eta motibazioak berrikuntzan inbertitzean eta finantzaketa erakartzeko metodo eraginkorrak arakatzean.

3.- I+G ustiatzeko rol eta estrategia gakoak

Rol erabakigarriak berrikuntzak merkaturatzeko prozesuan, eta merkatuan arrakasta izateko probatutako estrategia.

- Ikertzaile eta Garatzaileak: teknologia berriak garatzea eta aurretiko aurkikuntzak erabiltzea I+G+b proiektu berriak sustatzeko.
- Ustiapenaren kudeatzailea (Exploitation Manager): I+G+b-ren emaitzak ahalik eta ondoen erabiltzeko estrategiak, honako hauek barne: ikerketa-aplikazio berriak, lizentziamendua eta arauak sortzean parte hartzea.
- Jabetza Intelektualean adituak: Jabetza Intelektualeko eskubideak administratzea I-G+b-ren emaitzak babestu eta haien lizentziamendua ahalbidetzeko.
- Transferentzia Teknologikoaren kudeatzaileak: erakundeak industria- eta merkataritza-sektoreetan garatutako teknologiak erabiltzea.
- Estandarizazioan adituak: garatutako berrikuntzak jasoko dituzten arauak sustatu edo sortzea.

Rol+G+b ustiatzeko estrategia gakoak

- Proiektu berriak etengabe garatzea eta atzeraelikatzea: dauden ezagutzak eta teknologiak erabiltzea etorkizuneko ikerketa eta garapenatarako oinarri gisa. Atzeraelikadura-mekanismoak erabiltzea aurreko emaitzek proiektu berriak nola hobetu edo susta ditzaketen ebaluatzeko.
- Teknologiaren lizentziamendua eta merkaturatzea: teknologiaren lizentziamendurako politikak, sortzaileari zein lizentzia-hartzaileari mesede egingo dieten baldintzak zehaztuta. Lizentziamendurako eskuragarri dauden teknologiak aktiboki sustatzea teknologia-azoken, berrikuntza-sareen eta abarren bidez.
- Estandarizazio-jardueretan parte hartzea: estandarizazio-prozesuak, berrikuntzak industria-arauen parte izan daitezela bermatzeko. Estandarizazio-erakundeekin eta beste erakunde batzuekin lan egiteko estrategia, teknologia berriak hartzea sustatzeko.
- Aliantza Estrategikoak sortu eta kudeatzea: aliantzak enpresekin, unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin, I+G+b-ren emaitzetarako aplikazio eta merkatu berriak aztertzeko. Lankidetzak horiek ikerketen eragina eta erabilgarritasuna hedatzeko.
- Etengabeko monitorizazioa eta ebaluazioa: errendimendu-adierazleak ezartzea, ustiapen-estrategien eraginkortasuna neurtzeko. Aldian behingo berrikuspen-sistema ezartzea, estrategiak ingurune teknologikoko eta merkatu-ingurune aldaketan arabera doitzeko.

4. Proiektuak ebaluatzea eta estrategia planifikatzea: I+G+b proiektuen bideragarritasun ekonomiko eta komertziala ebaluatzea eta negozio-plan integral bat garatzea.

5. Marketina eta Harreman Komertzialen Kudeaketa berrikuntzaren sektorean: berrikuntzetarako marketin-plana eta bazkide eta lehiakideekin lankidetzan aritzeko teknikak ikastea.

Ustiapen-plana

1. Emaitzak identifikatzea. Emaitzak deskribatzea, produktuak, teknologiak, prozesuak eta sortutako ezagutzak barne. Produktu teknologikoaren eta merkatutako produktuaren arteko aldeak. Ustiapen-modu desberdinak. Balioa TRL bidez aztertzea.

2. Merkatua aztertzea. Merkatuaren eskaria ikertzea, lehia aztertzea, sektorearen joerak eta ase gabeko premiak identifikatzea. Merkatua segmentatzea: Emaitza bakoitzerako xede-merkatuaren segmentuak definitzea. Merkatu-aplikazioak.

3. Jabetza Intelektuala babesteko estrategiak. IP identifikatzea (patenteen, marken, egile-eskubideak, eta emaitzekin lotutako jabetza intelektualeko beste modu batzuen zerranda). Babes osagarria eskatzeko, dagoena mantentzeko eta jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzeko plana.intelectual.

4. EMerkaturatze-estrategia. Negozio-ereduak: emaitzak nola monitorizatuko diren deskribatzea (lizentziamendua, zuzeneko salmenta, enpresekiko lankidetzak, spin-off, eta abar). Aliantza estrategikoak: Balizko bazkide industrialak, akademikoak eta komertzialak identifikatzea, bai eta merkaturatze-estrategian izango duten zeregina ere.

5. Ezarpen-plana. Merkaturanzko ibilbidea: emaitzak merkatura eramateko jarduera gakoien kronograma zehatza, une garrantzitsuak barne. Beharrezko baliabideak: Plana ezartzeko beharrezkoak diren finantza, giza eta teknologia baliabideak zenbatetsea.

6. Finantzaketa-estrategiak. Finantzaketa-iturriak: dirulaguntzak, inbertsioak, finantzaketa kolektiboa, kredituak eta beste kapital-iturri batzuk identifikatzea.

Finantza Eskakizunen Plana: emaitzak ustiatzarekin lotutako kostuen xehetasuna, eta nola estaliko diren kostuak.

7. Inpaktua neurtzea eta KIPak errendimendu-adierazleak. Errendimendu-adierazle gakoak definitzea ustiapen-planaren arrakasta ebaluatzeko. Jarraipen- eta ebaluazio-sistema. Aurrerapena monitorizatzeko eta , beharrezkoa izanez gero, estrategia doitzeko metodoak.

8. Arriskuen Kudeaketa. Arriskuak identifikatzea: emaitzak ustiatzeari eragin diezaioketen arriskuak aztertzea. Arintze-estrategiak: arrisku horiek minimizatzeko edo kudeatzeko planak.

9. Komunikazio Plana. Komunikazio-estrategia: I+G+b-ren aurrerapenak eta lorpenak nola eta nori jakinaraziko zaizkion definitzea. Tresnak eta kanalak: komunikazio-tresnak eta -kanalak hautatzea alderdi interesdun guztiekin, komunikazioa eraginkorra izan dadin.

10. Etengabe berrikustea eta doitzea. Aldizkako ebaluazioak: ustiapen-planaren berrikuspen erregularrak planifikatzea, haren garrantzia eta eraginkortasuna bermatzeko.

Nola aurreratu etorkizunari – Eszenarioak zer diren eta nola eraikitzen diren



– Eguna eta ordutegia

Urriak 23, asteazkena. 9:30etatik 13:30etara.

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.
Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa, Zamudio.

– Iraupena

6 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziako erakunde bazkideentzat baino ez:

- inguruneke aldaketei dagoeneko adi daudenentzat eta erabakiak hartzeko ingurunean zaintza-jarduerak sistematikoki egiten dituztenentzat.
- berrikuntza-jarduera eta -proiektuen garapenean esperientzia dutenentzat.
- etorkizunari begiratu eta ikuspegi hori beren erabaki estrategikoetan nola txertatu jakin nahi dutenentzat.
- beren jardueran etorkizuneko agertokiak txertatzeko jakin-nahia edo behar espezifikoa dutenentzat.

*Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

- Ulertzea zer den etorkizuneko pentsamendua, eta erakundeen berrikuntzan eta lehiakortasunean duen garrantzia.
- Zalantzan jartzea edo birplanteatzea aurretik ezarrita ditugun zereginak
- Aurrera egitea zaintzatik beste prospektiba-tresna batzuk erabiltzera.
- Prospektiba-tresna sofistikatuagoak diren tresna batzuei buruzko oinarrizko ezagutzak eskuratzea.
- Erakundeetan metodologia hori txertatzeko aukera emango duten etorkizuneko agertokiaren ariketak egiteko moduari buruzko ezagutza teoriko eta praktikoak eskuratzea.

Prestakuntzaren edukia

A. Etorkizuneko agertokietarako sarrera: zer diren eta nola eraikitzen diren.

B. Nola erabiltzen dituzten erakundeek etorkizuneko agertokiak:

- nazioartean erreferentziazkoak diren kasu batzuk.
- Nola jakinarazten diren sortutako emaitzak berrikuntza-proiektuetan edo estrategian eragina izan dezaten.

C. Etorkizuneko agertokiei buruzko taldekako ariketa praktikoa.

Norekin



Ibon Zugasti

Prospektikerreko managing zuzendaria. .
Enpresen Kudeaketan eta Administrazioan lizentziaduna eta Zuzendaritza Estrategikoan masterra Deustuko Unibertsitatean. 1999az gero plangintza estrategiko eta prospektiboari buruzko

hainbat proiektu zuzendu ditu. Halaber, zenbait azterlan sektorial eta enpresa-plan estrategiko egiten parte hartu du (TELEFÓNICA, REPSOL, MONDRAGON CORPORACIÓN, IBERDROLA, GUGGENHEIM...) eta sektore publikoko proiektu prospektibo-estrategikoetan aritu da hainbat herrialdetan (Uruguai, Kolonbia, Kuba, Kanada, AEB...) eta EBn (Europako Batzordea...).



Rodrigo Dal Borgo

Prospektiba estrategikoaren arloko aholkularia eta beste batzuekin batera ParalogosAI konpainiaren sortzailea.

PhD, arloa: “Giza Eskubideak: Erronka Etikoak, Sozialak eta Politikoak”, Deustuko Unibertsitatea.

Rodrigo prospektiba estrategikoan eta aurreratze-gobernantzan aditua da, bai eta eszenatokiak planifikatzeko orduan ere, Oxfordeko Unibertsitatean doktore-egonaldia ondoan. Beste batzuekin batera ParalogosAI konpainia sortu zuen, eta Data Sciencerekin prospektiba estrategikoaren metodologiak erabiltzen ditu. 10 urtetik gora eman ditu prospektiba estrategikoa ikertzen eta praktikan jartzen, esparru akademikoan, sektore pribatuan eta sektore publikoan aritu da. Gaur egun politika publikoen eta prospektiba estrategikoaren kontsultorea da Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA).



Lola Elejalde

Nazioarteko zuzendaria Innobasquen.
Industria-ingeniaria Bilboko ETSITen, eta petrolioia, petrokimika eta gasa fintzeko ingeniaria Parisko Institut Français du Pétrole erakundean. Bere ibilbidean zehar, prestakuntza akademikoan

sakondu du prospektiba, estrategia eta berrikuntza bezalako arloetan espezializatutako prestakuntzekin eta Enpresa Institutuaren Advanced Management Program eta ESAD Eren Kontseilarien Programa bezalakoekin osatu du. Estrategian eta berrikuntzan izan duen eskarmentu profesionalak lotura estua izan du beti “etorkizunen pentsamendurekin”, prospektibarekin, eta 2021ean eta 2022an Espainiako 40 futurista onenen Forbes zerrendan egon da. Gaur egun, Nazioartekotzeko zuzendaria eta prospektiba-jardueraren arduraduna da Innobasquen.



Oihana Blanco

Berrikuntza-politikan proiektu-arduraduna Innobasquen.

Ekonomian lizentziaduna EHUn, Kanpo Merkataritzan eta Enpresen Nazioartekotzean masterra Bilboko Merkataritza Ganberan eta

Master in Business Innovation Deusto Business School-en. Innobasquen hainbat arlotako proiektuen arduraduna izan da, hala nola I+G+b-a, ekonomia zirkularra eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako politiken nazioartekotzea. Duela 5 urtetik hona zaintza- eta prospektiba-proiektuen arduraduna da, eta arlo horretan trebatu da Manchesterreko Unibertsitatean.

Berrikuntza irekia eta berrikuntza-ekosistemak



– Eguna eta ordutegia

Azaroak 13, asteazkena. 9:30etatik 13:30etara.

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.
Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa, Zamudio.

– Iraupena

4 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

Berrikuntzaren Euskal Agentzia Innobasqueren kide diren erakundeentzat bakarrik.

- Lankidetzan berrikuntza-estrategiak dituzten eta egungo egoerari buruz hausnartu edo ebaluatu nahi duten erakundeak, zein etorkizunean pentsatu nahi dutenak.
- Lankidetzan berrikuntza-prozesua hasi nahi duten baina nondik hasi ez dakiten erakundeak.
- Berrikuntzako arduradunak, CEOak, ekosistema-sortzaileak, jabetza intelektualaren arduradunak eta ekosistemekin lanean eta horiei lotuta berrikuntza-estrategia konfiguratu behar dutenak.

*Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

- Ulertzea zer den berrikuntza-ekosistemei irekita dagoen berrikuntza eta zein onura ekartzen dizkien erakundeei.
- Erakundearen berrikuntza-estrategia aztertzeke oinarrizko tresnak izatea, estrategia honen etorkizuneko ikuspegia eta horrek erakundearen strategiari egindako ekarpena.
- Enpresaren prozesuak, prozedurak, antolakuntza eta KPIak ulertzea eta horiek helburu estrategiko orokorrekin eta lankidetzan ezarritako berrikuntzako helburuekin lerrotzea.
- Ekosistemaren dinamika eta eragile nagusiak identifikatzea, lankidetzarako eta orokorrean berrikuntzarako. Harreman horiek lehenestea, berrikuntzarako helburu estrategikoen arabera.

Prestakuntzaren edukia

- Zer dira berrikuntza irekiak eta ekosistemak?
- Berrikuntza Irekiaren Hiru Dimentsioak – Berrikuntzaren estrategia aztertzeke tresnak eta metodologiak.
- “Berrikuntza Irekiaren Estrategiaren Mihisea” tresnaren eta lankidetzarako beste tresna batzuen bidez berrikuntza-estrategiaren analisiaren dinamika.
- Hurbileko ekosistemaren eragileak aztertzeke tresnak eta loturak lehenestea.

Norekin



Marisol Menéndez

CEO & Founder Bilakatu / WITH (we-with.com)

Berrikuntzako aditua, 20 urte baino gehiagoko esperientzia berrikuntza irekia, ekosistemak, bankua eta eraldaketa digitala arloetan.

Berrikuntza irekian eta ekosistemaren orkestrazioan

jarduten duen Bilakatu enpresaren CEO eta sortzailea da. Konektatu, pentsatu eta jarduteko modu berri baten bidez lidergo-eredu berri bat sustatzen duen emakume lider eta zuzendarien ekosistema WITHko CEOa da.

Advisor-ra da hainbat sartup eta funtsetan (Meniga, Movizzon, Brain VC, Axyon AI). Lehenago postu hauek izan ditu: Chief Open Innovation South Summit enpresan, Global Head of Open Innovation BBVAn eta Head of Open Innovation Nordic Future Innovation enpresan. “Berrikuntza Irekiaren 3 dimentsio” metodoaren eta “Oxford Handbook of Open Innovation” argitalpenean (Henry Chesbrough-ek editatua, Open Innovationen aitzindaria, et al., 2024) jasota dagoen “Connect-Think-Do” metodoaren egilea da.

Enpresentzako hazkunde tresna gisa finantzaketa alternatiboari buruzko ikastaro praktikoa



– Eguna eta ordutegia

Urriak 17, osteguna. 9:30etatik 13:30etara

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.
Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea, Zamudio.

– Iraupena

4 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

- Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziako erakunde bazkideentzat baino ez, beren negozioak hedatzeko finantzaketa-aukera berriak aztertu nahi dituztenentzat.
- Enpresaren finantzaketa-iturriak dibertsifikatu nahi dituzten finantza-zuzendariak eta kudeatzaileak.
- finantzaketa alternatiboari buruzko ezagutzan sakontzeko jakin-nahia dutenentzat.
- eta arrisku-kapitalaren egungo panorama eta haren aplikazio praktikoa ulertu nahi dituztenentzat.

*Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

Enpresentzako hazkunde tresna gisa finantzaketa alternatiboari buruzko ikastaro praktikoa

Ikaskuntza-helburuak

- Finantzaketa alternatiboaren eta finantzaketa-modu tradizionalen arteko oinarriak eta desberdintasunak ulertzea.
- Arrisku-kapitalaren inbertsio-etapak eta -ereduak identifikatzea, baita negozioei nola aplikatu dakizkiekeen ere.
- Finantzaketa alternatiboarekin eta arrisku-kapitalarekin lotutako abantailak eta erronkak ezagutzea.
- Enpresak prestatzea arrisku-kapitaleko inbertsioak erakartzeko eta kudeatzeko, beharrezko dokumentazioa eta lege-alderdiak prestatzea barne.
- Kasu praktikoetatik eta finantzaketa alternatiboa erabili duten enpresen testigantzetatik ikastea, ikasgai garrantzitsuak eta aholku praktikoak hartuz.

Prestakuntzaren edukia

Ikastaroak bost modulu nagusi izango ditu, eta bakoitzak finantzaketa alternatiboaren eta arrisku-kapitalaren hainbat alderdi jorratuko ditu:

1) Finantzaketa alternatiboko iturriak kontuan hartzeko arrazoiak

- Tamainaren garrantzia gaur egungo munduan.
- Hazteko bideak.
- Erakunde erakargarriak izan nahi ditugu talentua erakartzeko?

2) Arrisku-kapitala

- Definizioa eta kontzeptua.
- Inbertsio-prozesuaren etapen deskribapen zehatza, adibide praktikoekin.

3) Abantailak eta erronkak

- Finantza-malgutasunari, sare berrietarako sarbideari eta ezagutzei buruzko eztabaida.
- Espero diren arriskuak eta itzulerak ebaluatzea.
- Enpresentzako gogoeta kritikoak, finantzaketa-modu hori aukeratzean.

4) Zure enpresa inbertitzaileentzat prestatzea

- Nola ebaluatu enpresa bat arrisku-kapitalerako egokia den.
- Funtsezko dokumentuak prestatzea eta gobernu korporatiboari buruzko gogoetak.

5) Kasu praktikoa: NX Technologies-en esperientzia.

Enpresentzako hazkunde tresna gisa finantzaketa alternatiboari buruzko ikastaro praktikoa

Norekin



Pedro Muñoz-Baroja

Easo Ventures SCReko Managing Partner

Pedrok Easo Ventures zuzentzen du 2018an eratu zenetik.

Horren aurretik, Pedrok 17 urtez garatu zuen bere lanbide-esperientzia industria-sektorean

(altzarigintza eta automobilgintzaren sektorean); horietatik 5 esportazio-departamentua zuzentzen eta gainerako 12ak zuzendari nagusi gisa. 2014an hasi zuen bere ibilbidea venture capital sektorean, eta Berriup abiarazi zuen, Euskal Herriko Startups pribatuaren lehen azeleragailua. Deustuko Unibertsitatean lizentziatua da Ekonomia eta Enpresen Zientzietan.



Mikel Peral

NX Technologieseko Cofounder eta CEO

Mikel Peralek PwC-n hasi zuen bere ibilbide profesionala. Senior Bazkidea izan zen PwC Corporate Finance-n (M&A). Horren aurretik, Supply Chain & Eragiketen arloan egin zuen lan.

2020an, beste 3 bazkiderekin elkartu eta NX Technologies (EPowerLabs SL) abiaraztea erabaki zuen, trantsizio energetikoaren barruan irtenbide elektronikoko efizienteak emateko.

Mikel ingeniari elektronikoa da eta Tecnun eRacing-eko kide ohia.

I+Grako pizgarri fiskalen eta berrikuntza teknologikoen berritasunei buruzko ikastaroa



– Eguna eta ordutegia

Azaroak 28, osteguna. 9:30etatik 13:30etara

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.
Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea, Zamudio.

– Iraupena

4 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

- Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziako bazkide diren enpresak, I+G+b eta/edo berrikuntza teknologikoko jarduerak egiten dituztenentzat edo horiei aholkuak ematen dizkietenentzat.
- I+G+b-rako kenkari fiskalen arloko azken berrikuntzei eta horiei lotutako finantzaketa-aukerei buruzko jakin-nahia dutenentzat.
- kenkari horiek haren enpresa motari aplikagarriak zaizkion eta, hala badagokio, egin beharreko izapideak ezagutzeko beharra dutenentzat.

*Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

I+Grako pizgarri fiskalen eta berrikuntza teknologikoen berritasunei buruzko ikastaroa

Ikaskuntza-helburuak

- Zerga-araudian kenkari fiskalerako eskubidea sor dezaketen I+G+b arloko jarduera berriak ezagutzea.
- Pizgarri fiskal horren garrantzia ikuspegi kuantitatibotik ulertzea, I+G+b arloko jarduera-tipologia bakoitzari egokitutako GZren likidazio-kasu praktikoak azalduz.
- Pizgarria aplikatzeko bete behar diren izapide formalen eskema argia eta sinplea izatea.
- Eta, azkenik, aipatutako pizgarriaren aplikazio praktikoari buruz eztabaidatzea, zalantzak partekatzea eta planteatzen diren gaiak konpontzen saiatzea.

Prestakuntzaren edukia

- A. Kenkari fiskalerako eskubidea sortzen duten berrikuntza teknologikoko kasuak aztertzea, fokua kasu berrietan jarritz.
- B. Kenkari fiskalerako eskubidea sortzen duten I+G arloko kasuak aztertzea, fokua kasu berrietan jarritz.
- C. Kenkari fiskalak eta horiek aplikatzeko baldintzak azaltzea, bai eta horien azterketa praktikoa ere.
- D. Pizgarri fiskala aplikatzeko beharrezkoak diren izapide formalak berrikustea.
- E. Eztabaida eta galderen txanda.
- F. Networking I+G+b arloko aholkularitza fiskaleko zerbitzuetan espezializatutako erakunde bazkideekin (Elkargi eta bazkide diren aholkularitza-enpresak).

I+Grako pizgarri fiskalen eta berrikuntza teknologikoen berritasunei buruzko ikastaroa

Norekin



Aitor Soloeta

Euskadiko arlo fiskalaren arduraduna Gómez-Acebo & Pombon.

Aitor espezializatuta dago Foru Zerga Zuzenbidean, eta nazioko eta nazioarteko erakundeei aholkularitza eman die. Abokatu ekonomista da (Deustuko Unibertsitatean ikasi zuen), eta enpresen aholkularitza juridikoko masterra du. Esparru pribatuan lan egin du 13 urtez (zenbait bulegotan,

hala nola Cuatrecasas eta PwC) eta administrazio publikoan 21 urtez. Horietatik 7 urte egon zen Institutio Publikoetako arlo ekonomikoetako arduradun gisa (hala nola Bizkaiko Batzar Nagusiak eta Getxoko Udala), 10 urte finantza ikuskatzaile gisa eta azken 4 urteak Bizkaia Foru Ogasunaren zuzendari nagusi gisa. Horrez gain, Bilbao Bizkaia Kutxa finantza-erakundearen Administrazio Kontseiluaren lehendakariordea izan da, banku-fundazio bihurtu aurretik. Halaber, erakunde horretan ere parte hartu du, patronatuaren kide gisa. Egile eta egilekide gisa parte hartu du aldizkari espezializatuetao zenbait argitalpen eta artikulutan.



Zuriñe Martinez. Arlo fiskaleko aholkularia da Gómez-Acebo & Pombon.

Ekonomian graduatua da Euskal Herriko Unibertsitate Publikoan, EHU. Aholkularitza Fiskaleko Nazioarteko masterra egin zuen ISDE Zuzenbide eta Ekonomia Goi mailako Institutuan. Zerga eta zerga zuzenbidean

espezializatuta dago. Aurretik lan egin du arlo fiskalean, besteak beste, Euskaltax eta Deloitte bulegoetan, eta behin eta berriz parte hartu du familia-enpresei eta multinazionaleri aholkularitza fiskala ematen. Era berean, esperientzia sendoa du berregituraketa-eragiketetan, egiaztapen- eta ikerketa-jarduketetan eta prozedura ekonomiko-administratiboetan aholkularitza.comprobación e investigación y procedimientos económico-administrativos.



Alaitz Landaluze

Telekomunikazio Ingeniaritzan lizentziatua da Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako politiketan aditua. 8 urte egon ostean Accentureko gerente lanetan, 2008an **Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzian** lanean hasi zen. Gaur egun, Zientzia,

Teknologia eta Berrikuntzako Politiken Unitatea zuzentzen du. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzarekin batera lan egiten du Lehendakariak kudeatutako 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana diseinatzen eta gauzatzen, eta I+Gko eta berrikuntzako programak diseinatzen eta kudeatzen zenbait Sail eta Foru Aldunditan. Zehazki, BFArekin batera lan egin du sozietateen gaineko zergaren I+Gko eta berrikuntza teknologikoko baldintza berriak ezartzen.




Iñaki Ganzarain

Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan lizentziatua, eta Kudeaketako Informatikako ingeniari teknikoa da Deustuko Unibertsitatean. 4 urte egon ostean Minsaiteko aholkulari

lanetan, 2016an **Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzian** lanean hasi zen. Gaur egun, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Politiken Unitatearen koordinatzaile teknikoa da. Bere jardueren artean, honako hauek nabarmentzen dira: Eusko Jaurlaritzarekin batera lan egitea Lehendakariak kudeatutako 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana diseinatzen eta gauzatzen; aholkularitza ematea zenbait saili eta foru-aldundiri I+Gko zenbait tresna diseinatzen eta garatzen; eta analisiak egitea Euskadiko berrikuntzaren egoerari buruz. Zehazki, BFArekin batera lan egin du sozietateen gaineko zergaren I+Gko eta berrikuntza teknologikoko baldintza berriak ezartzen.

Sandbox, esperimentaziorako espazio kontrolatua berrikuntza eta erregulazioa lerrokatzeko



– Eguna eta ordutegia

Azaroak 6, asteazkena. 9:30etatik 13:00etara.

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.
Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea, Zamudio.

– Iraupena

3,5 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziako erakunde bazkideentzat baino ez:

- Esperimentaziorako espazio bat garatu daitekeen jarduerari buruzko eskumena duten administrazio publikoak. Profil egokiena: berrikuntzako zuzendaria/zuzendariordea.
- Arauaren muga dauden produktu eta zerbitzu berritzaileak garatzen dituzten enpresak.

*Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

- Esperimentaziorako espazioei buruzko oinarrizko ezagutzak eskuratzea, oro har, eta, bereziki, sandboxi buruz, berrikuntza sustatzeko tresna baita.
- Esperimentaziorako beste espazio batzuen adibideak ezagutzea, arreta sandboxetan jarrita.
- Esperimentaziorako espazioak behar bezala definitzeko eta funtzionatzeko gakoak ezagutzea, arreta berezia jarrita sandboxetan.
- Sandbox batean parte hartzearen onurak identifikatzea.

Prestakuntzaren edukia

- A. Esperimentaziorako espazioei sarrera. kontzeptuaren definizioa, tipologia eta garapen-esparrua.
- B. Esperimentaziorako espazioen ezaugarri nagusiak eta diseinu-gakoak.
- C. Esperimentaziorako espazioak hedatzeko erregulazioa.
- D. Estatu mailan zein tokiko mailan ezarritako sandboxen kasu praktikoak.
- E. Sandbox batean parte hartzen dutenentzako onurak.
- F. Esperimentaziorako espazioak hedatzeko ibilbide-orria.

Formación impartida por



Diego Moñux

SILOren bazkide fundatzailea

Science & Innovation Link Office (SILO) enpresako bazkide zuzendaria eta fundatzailea. SILO erreferentziatzeko enpresa da berrikuntza publikoan, lankidetzaren publiko-privatua eta enpresa-

berrikuntzako eredu berrietan. Berrikuntza-politikako proiektu ugari zuzendu ditu, bai ikuspegi estrategikotik zein operatibotik, eta zientzia-industria lankidetzan eta publiko-privatua espezializatu da: Ezagutzaren transferentzia, berrikuntzaren erosketa publikoa eta sandbox. Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioari atxikitako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Aholku Batzordeko kidea da, eta Gobernuaren Presidentetzaren Espainia Nazio Ekintzailea estrategiaren Aholku Batzordeko kidea ere izan da. Zientzia eta Berrikuntza ministroaren kabineteko zuzendariondokoa izan da, bai eta Unibertsitate eta Ikerketako estatu-idazkariaren aholkularia eta CDTIko administrazio-kontseiluko kidea ere.



Juan Pablo Villar

SILOko Estrategia arloko senior kudeatzailea

20 urte baino gehiagoko esperientzia du aholkularitza estrategikoaren eta negozio-aholkularitzaren esparruan. Zenbait administraziori aholku eman die berrikuntza-tresna berrien estrategiak eta politikak definitzeko. Gaur

egun zenbait sandbox sektorial abiarazteko prozesuko buru da. SILOn hasi aurretik, aholkularitza-enpresa handi batean (Everis, gaur egun NTT Data) eta Icalves nitxoei buruzko aholkularitza estrategikoan egin du lan. Eraldaketa digitalaren jarraipenari lotutako proiektuen diseinu-, kudeaketa-, ikuskaritza- eta kontrol-zereginak egin ditu.




Melany Sosa

SILOko Lege arloko kudeatzailea

Aitua da kontratazio publikoan eta berrikuntzarako lankidetzaren publiko-privatuko tresna juridikoetan (BEP berrikuntzaren erosketa publikoa eta esperimenezko espazioak barne).

2021ean hasi zen Science & Innovation Link Office (SILO) enpresan lanean aholkulari juridiko senior gisa, sektore publikoko berrikuntza-proiektuak prestatzeko eta gauzatzeko lege-euskarria emate aldera. Kontratazio publikoan espezializazio handia du. Bost urtez baino gehiagoz aritu zen Tenerifeko Parke Zientifiko eta Teknologikoko (Tenerifeko Uharteko Kabiloaren berrikuntza-arloaren mendeko merkataritza-sozietate publikoa) administrazio-unitateko buru gisa zerbitzuak ematen.

Teknologia kuantikoak: gure industriarentzako benetako aukerak



– Eguna eta ordutegia

Azaroak 20, asteazkena. 9:30etatik 12:30etara.

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.
Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea, Zamudio.

– Iraupena

3 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

Berrikuntzaren Euskal Agentzia Innobasqueren kide diren erakundeentzat bakarrik.

- Inguruan gertatzen diren aldaketei erne daudenak.
- Goraldian dauden teknologiak ezagutzeko kezka dutenak, zehazki, teknologia kuantikoak, eta enpresan izan dezaketen eragina.
- Ikasteko edo grina pizteko adibide praktikoak bila daudenak.

*Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

Teknologia kuantikoak: gure industriarentzako benetako aukerak

Ikaskuntza-helburuak

- Teknologia kuantikoei buruzko oinarriko ezagutza eskuratzea: zer diren, zein diren garapen-esparru eta aplikazio-eremu nagusiak.
- Teknologia horiek erakundeetan ezartzeko dauden zalantzak, oztopoak eta erronkak ezagutzea.
- Industriarentzako aukera nagusiak identifikatzea.
- Erakunde mota ezberdinetan aplikatzeko moduko kasu praktikoak ezagutzea.

Prestakuntzaren edukia

A. Azalpen teorikoa:

- Zer dira teknologia kuantikoak?
- Garapen-arloak.
- Aplikazio-eremuak.
- Industriarentzako aukerak.
- Oztopoak eta erronkak.

B. Kasu praktikoak.

- Zenbait sektoretako 3 kasu

Formación impartida por



Aitor Moreno

Adimen Artifiziala & Quantum Computing Saileko arduraduna, Ayesa-Ibermática.

Honako hauekin lotutako proiektuak kudeatzen ditu: neurona-sareetan, algoritmo genetikoetan, logika zehaztugabeko sistemetan eta sistema adituetan

oinarritutako kontrol-sistemen ezarpena; informazio-bolumen handien analisisa (Data-Mining); eta Interneten informazio garrantzitsua hautematea (semantika, ontologiak eta LinkedData).

Europako eta Espainiako I+G proiektuen kudeaketan parte hartzen du

Adimen Artifizialaren aplikazioan.

Adimen Artifizial Sortzaileako Tailerra



– Eguna eta ordutegia

1. Saioa: Azaroak 27, asteazkena / 9:00etatik, 14:00etara.
 2. Saioa: Abenduak 4, asteazkena / 9:00etatik, 14:00etara.
 3. Saioa: Abenduak 12, osteguna / 9:00etatik, 14:00etara.
- * Hiru saioetan parte-hartzea derrigorrezkoa da.

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.
Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea, Zamudio.

– Iraupena

15 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziako erakunde bazkideentzat baino ez (enpresak, eragile zientifiko- teknologikoak, administrazio publikoa, gizarte-erakundeak, etab.)

- Adimen Artifizialari (AA) eta Adimen Artifizial Sortzaileari (AAS) buruz eta egunerokoan duten ezarpenari buruz gehiago jakiteko jakin-nahia dutenentzat.
- Erakundeetan hobekien erabil daitezkeen AAREN tresnak ulertu eta eskaintzen dituzten onurak maximizatu nahi dituztenentzat.

*Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

- ASren ulermen osoa eta orekatua eskaintzea, haren ezarpenaren alderdi teknikoak eta giza elementuak jorratuz. Horrek barne hartzen ditu etika AAn eta gizartean eta negozioan duen eragina.
- Parte-hartzaileei Adimen Artifizial Sortzailean (AAS) sortzen ari den teknologiarari eta hainbat enpresa-sektoretan dituen aplikazioei buruzko ezagutza sakona eta eguneratua ematea.
- Profesionalak gaitzea beren erakundeetan AASren ezarpena gidatu eta kudeatzeko, eta, horrela, enpresa-eragiketen eraldaketa eraginkorra sustatzea.
- AASren hezkuntzan ikuspegi berritzailea sustatzea, metodo pedagogiko modernoak eta tresna teknologiko aurreratuak erabiliz, ikaskuntza eraginkorra eta praktikoa errazteko.

Prestakuntzaren edukia

1. saioa. Nork emango duen: Alex Rayón Jerez

1. zatia – AASrako sarrera – Nondik gatozen, non gauden eta norantz goazen

- Adimen Artifizial Sortzailerako (AAS) sarrera: Oinarrizko kontzeptuak, gaurkotasuna eta epe laburrean munduan izango duen eragina.
- AA Sortzailea: funtzionamendua eta aplikazioak hainbat eremutan.
- AA Sortzailearen ereduak: dauden ereduak eta haien ezaugarriak aztertzea.
- Prompts-en kudeaketa: AA sortzailearen ereduak gidatuko dituzten prompt eraginkorrak sortzeko teknikak.
- Haluzinazioak saihesteko metodo sokratikoa.

2. zatia – Makinarekin hitz egiten: Prompting teknikak

- Zer da prompting?: nola eman jarraibideak makina bati
- Nola hitz egin makina batekin: hizkuntza naturalarekin hitz egiteko estrategiak
- Promptingeko 12 teknikak

2. saioa. Nork emango duen: Iker Prieto Ramírez

1. zatia – AASren erabilera produktibitatean

- AAS erabiltzea informazioa bilatzeko: informazio garrantzitsua modu efizientean bilatzeko estrategiak.
- Informazioa laburtzea: AAren aplikazioak testuak laburtu eta funtsezko informazioa ateratzeko.
- Prozesuak optimizatzea: zeregin errepikakorrak automatizatzea, efizientzia hobetzeko.
- Testuak sortzea: eduki automatizatua sortzea, hala nola mezu elektronikoak, txostenak eta aurkezpenak.
- Elkarrizketa-eragileak: chatbotak

2. zatia – Erabilera-kasuak Sormenean

- AAS erabiltzea irudiak sortzeko.
- AASk nola lagun diezagukeen bideoak sortzen: hizkuntza naturalatik bideo sortzailerara.
- Aurkezpenak: testu-fitxategi batetik aurkezpen batera, AAS erabiliz.
- Bideoak eta itzulpenak AAS erabiliz.
- Abatarrik: nola sortu pertsonaia bizidunak

3. saioa. AAS egunerokoan ezartzeko ibilbide-orria Nork emango duen: Alex Rayón Jerez

1. zatia – Erabakiak hartzen AAS erabiltzeko

- AAS nire enpresan edo erakundearen ezartzeko irizpideak:
 - Zibersegurtasuna
 - Mailaz igotzeko aukera
 - Kostuak
 - Gobernantza
 - Beste irizpide batzuk...
- AASren tresnak hautatzeko irizpideak:
 - Aren tresnen kategoriak ulertzea (ikasketa automatikoa, hizkuntza naturalaren prozesamendua, ordenagailu bidezko ikusmena, etab.).
 - Eskura dauden tresnen ezaugarriak, gaitasunak eta mugak ebaluatzea.
 - Tresnak balioztatzea.

2. zatia – Etorkizuneko erronkak: joerak, mugak eta kontu etikoak

- Egungo joerak AAn:
 - Zer ekarriko ditu AASren etorkizunak?
 - Zergatik da garrantzitsua AAS nire enpresan txertatzea baloratzea?
- Erantzukizuna, haluzinazioak eta etika: zer erronka planteatzen dizkigu AASk?

Norekin



Alex Rayón

Informatikan eta Telekomunikazioetan doktorea; doktore-tesia prozesuen optimizazioari aplikatutako Big Data Analytics arloan egin du.

Adimen artifizialean aditua.

Gaur egun, Brain and Codeko CEO eta Co-Founder da, eta Adimen Artifizial Sortzailearen Workshop

proiektuaren koordinatzailea, zuzentzen duen enpresan dagoen trebakuntza programa irekia.

Gainera, adimen artifizialeko prestakuntza-azpieroak koordinatzen ditu: Audio workshopa adimen artifizial sortzailearekin, Power BI workshopa, Programazio eta Adimen Artifizialeko Bootcampa, "Datuaren Akademia" programaren zuzendaria, erakundeetan eta enpresetan data driven kultura bat sortzeko. Eraldaketa digitalaren arloko irakaslea da, oro har, eta Big Data Analytics, bereziki, munduko hainbat unibertsitatetan.



Iker Prieto Ramírez

Big Data eta Business Intelligence masterra, Marketin Digital eta Social Mediaren Zuzendaritza eta Kudeaketako graduondokoa. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziaduna. Gaur egun, Iberdrolan lan egiten du Legal Reporting arloan; Data Analytics. Funtzioak bete ditu Minsait-

en Business Intelligence arloan; Big Data. Gaur egun, Brain and Code-ren Audio Adimen Artifizial Sortzaileari buruzko Workshop programa irekiaren koordinatzailea da. Adimen Artifizial Sortzailean aditua. Python, SQL eta BI tresnen programazio lengoian trebatua.